



Otsogorritxu



Pello Esnal

N

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura
Sailaren diru-laguntzea jaso dau.*

OTSOGORRITXU

Egilea: Pello Esnal

Marrazkilaria: Jokin Mitxelena

© IBAIZABAL ARGITALETXEA

© PELLO ESNAL

BILDUMEAREN ANTOLATZAILEA: Juan Carlos Landa

AZALEKO DISEINUA: Marcos San Blas

AZALEKO MARRAZKIA: Jokin Mitxelena

BARRUKO MARRAZKIAK: Jokin Mitxelena

ISBN: 84-8325-223-6

LEGEZKO GORDAILUA: BI-714-99

BILDUMEAREN ANTOLATZAILEA: Sabin Gorrotxategi

BILDUMEAREN KOORDINATZAILEAK: Eukene Herrera, Nekane Umerez


BILDUMEAREN AHOLKULARIAK: Jabi Artaraz, Maite Bilbao, Marisa Elorriaga, Begoña Garaizar eta Iñaki Zubeldia

BIZKAIERAZ: Sabin Barruetaña eta Jabi Artaraz


MAKETATZAILEA: Aitziber Ibaibarriaga

R.G.M. TAILER GRAFIKOAK

ALE KOPURUA: 1000



R. 13.591.



Kaixo, lagunok!

Matxinsalto abenturazale
amorratua nozue.

Ipuin honegaz, bidaia zoragarria
egiteaz gain, neure lagun barriak
aurkeztu gura deusuedaz, esate-
rako, Mikel barritsua, Jone patxa-
datsua, Haritz kaskagorria, Hodei
dotorea... Ane isila eta Nahikari
andereño gaztea.

Zatoze neugaz!



1

Ez ekian zer egin. Ez ekian zer pentsatu. Ez ekian zelan jokatu. Ezta zelan asmatu ere. Ez ekian ezer; zelan eban izena besterik ez.

—Andereño Nahikari —inguratu jakon, isilka, Ane isila—. Gaur ere ez daukagu otsorik.

Laugarren aldiz geratu ziran otso barik. Bosgarren aldiz aukeratu beharko eben otsoa... Baina ez eban etsiko. Nahikari eban izena gero. Eta izana. “Zer

gura, ha lortu”, eban lemea. Eta “nahikariak edertzen dauz gauza itsusiak” esaera zaharra, danetan gogokoen.

—Konponduko gara. Aurkituko dogu bosgarren otsoa ere, Ane.

—Baina inork ez dau otsoa izan gurako.

—Konponduko gara.

Andereño Nahikarik ez ekian, oster, zelan konpondu. Ez ekian zer egin. Ez ekian ezer; zelan eban izena besterik ez.



2

Zortzi aste lehenago hasi zan dana, ikastaro barriaren lehenengo bariku arratsaldean, ikastolako antzerki-aretoan. “Bat, bi, hiru, lau... hogeita zortzi”. Hogeita zortzi neska-mutil kontatu ebazan, banan-banan, Nahikari antzerki-andereñoak. Hogeita zortzi hareekaz batuko zan hantxe bertan, barikuero-barikuero, arratsaldeko bostetan, antzerkiak asmatu, pres-tatu eta... gero ikastolako neska-mutil txiki-ki-ki-ki aurrean antzezteko. Gabonak baino lehenago antzeztuko eben estreinakoa.

Baina prestatu egin beharko eben aurretik, eta asmatu...

Lehenengo bariku arratsalde haretan, Nahikari andereñoak argi azaldu gura izan eutsien estreinako antzerkiaren gaia.

—Behin baten, neska bat bizi ei zan amagaz basoan... —hasi jaken ipuin zahar bat kontatzen.

Baina gelako isiltasunak ez eban asko iraun.

—Eta neskea beti txano gorri bategaz ibiltzen ei zan eta...

Handik aurrera danak ekien zelan jarraitu. Zelan jarraitu eta... zelan amaitu: ehiztariak otsoa hil eta neska-amamak bizerik atarata sabeletik.

Eta hogeita zortziak euren kontaketea amaitu ebenean, honan esan eutsien Nahikari antzerki-andereñoak:

—Nik beste modu batera dakit. Itziko deustazue azkeneraino kontatzen?



Eta ustebako ipuina kontatu eutsien. Hobeto esan, ustebako amaiera ebana.

—Eta ehiztaria? Non dago basoko ehiztaria? Eta non dira basoko ehiztariaren tiroak? —itaundu eutsan Mikel barritsuak, inoiz baino barritsuago.

—Ehiztaririk ez dago ipuin honetan.

—Eta Txanogorritxu eta amama? —itaundu eutsan Jone patxadatsuak, inoiz baino urduriago.

—Otsoak jan ebazan. Eta kito. Holan amaitzen da nire ipuina.

—Bai ipuin zatarra!!! —bota eutsien hogeita zortziak, aho batez.

—Ba, holan argitaratu eban, orain dala hirurehun urte, 1697an, Charles Perrault idazle frantsesak.

—Bai idazle zatarra! —eten eutsan Haritz kaskagorri besteko biziak.

—Eta nork asmatu eban amaiera polita? —itaundu Hodei dotoreak.

—Bi izan ziran, idazle alemaniar bi: Grimm anaiak...



—Gora Grimm anaiak! —eten eutsan Mikel barritsuak, beti bezain zalapartari.

—Gora Grimm anaiak!!! —egin eutsien oihartzun gainerako hogeita zazpi neska-mutilak: Jone patxadatsuak, Haritz kaskagorriak, Hodei dotoreak eta... beste guztiak; baita Ane isilak ere.

Danak isilduazo eta honan amaitu eban Nahikari andereñoak, bariku arratsalde haretan:

—Bai. Gora Grimm anaiak. Eta gora Charles Perrault idazle frantsesa ere!

—Ba, gora frantsesa ere! —egin eban oihu Mikelek, haren izen-abizenak esaten asmatuko ez ete eban bildurrez.

—Gora frantsesa ere! —errepikatu eben ondoren gainerako hogeita zazpiak; eta ondoren, urruneko oihartzunak.



—Ba, Charles Perrault idazlearen omenez —jarraitu eban Nahikari andereño gazteak—, Txanogorritxu antzerkia antzeztuko dogu Gabonak baino lehenago, ikastolako neska-mutil txikienen aurrean. Holan ospatuko dogu, handikiro, ipuina argitaratu zaneko hirugarren mendeurrena.

—Aufi! —egin eban oihu Mikelek.

—Aufi!!! —egin eben oihartzun beste hogeita zazpiak.

—Aufi!!! —itzuli eutsien oihua urruneko oihartzunak.





3

Hurrengo barikuan jarraitu behar izan eban Nahikari andereñoak.

—Charles Perrault-i eta Grimm anaiei egin deikiegun omenaldirik onena —hasi zan esaten, azalpen askotan luzatu barik—guk ere ipuina zeozertxo aldatzea izango da.

“Bat, bi, hiru, lau...” Ezin konta ahala ideia azaldu ebezan danen artean. Azkenean, apurka-apurka, itxurea hartzen hasi zan ipuin zaharbarritua:

—Otsoak basoan bertan jango dau Txanogorritxu...

—Eta mediku-plantea eginez joango da amamaren etxera...

—Eta amama ere jan egingo dau... Eta ama kezkatu eta amamaren etxera joan eta... ama ere jan egingo dau otsoak...

—Tira, tira! —eten behar izan eban, azkenean, Nahikari andereñoak hogeita zortzi neska-mutilen iturria—. Horregaz nahikoa dogu oraingoz. Datorren astean, bertsotan ekarriko dot antzerkiaren hasierare, erdiraino edo. Eta hasi pentsatzen zein antzezle izango zarien antzerkian.

—Ni, otsoa —aurreratu zan Mikel barritsua.

Inor ez zan ausartu aurka egiten.

Uluka urten eban Mikelek, antzerki-aretotik. Ulu egin eban urruneko oihartzunak ere.



4

Hirugarren barikuan, antzerkiaren erdia prestatuta eroan eban Nahikari andereñoak antzerki-aretora, aurrekoan neska-mutilak zirriborratutako gidoiaren arabera. Prestatuta eroan eban, gainera, antzerkian nor zein izango zan ere. Bestela, Jone patxadatsuak, Haritz kaskagorriak eta Hodei dotoreak hartuko eutsien danei aurrea, eta han geratuko ziran beste guztiak betiko bigarren mailan.

Paperak banandu aurretik, oster, neska-mutil guztiak nasaitu ebazan: danak

hartuko eben parte antzerkian. Dan-danak. Baita beti isilik gelditzen zan Ane isilak ere. Horretarako, sistema egoki bat asmatu eban. Sistema egoki eta ezin aproposagoa. Bost jokalarri nagusi izango ebazan antzerkiak: ama, Txanogorritxu, otsoa, amama eta ehiztaria. Eta beste guztiak talde bitan bananduko ebazan, eta kontalariarena egingo eben...

—Baina danok ikasiko doguz bertso guztiak: ama, Txanogorritxu, otso, amama, ehiztari eta kontalariarenak. Danok, danak.

Eta kantari hasi zan Nahikari andereñoa, *Begiak barrez-barrez* doinuaz:

Handia gertatu zan
aspaldi batean...

Eta danak errepikatu eben:

Handia gertatu zan
aspaldi batean.

Eta Nahikari andereñoak jarraitu eban:

Ea bertsoan kontatzen dogun guztion artean, ai, ai, ai...

Eta danak amaitu eben:

Ea bertsoan kontatzen dogun guztion artean.

Eta bardin osotu eben bigarren bertsoa ere, puntu bakoitza birritan kantatuz, bigarrenengoan *ai, ai, ai* eginez lehenengo aldian.

Historia hasten da
baserri batean.

Historia hasten da
baserri batean.

Han dihardue ama-alabak
berbeta betean, ai, ai, ai...

Han dihardue ama-alabak
berbeta betean.

Gero, ama-alaben arteko alkarriz-
keta gozoa ikasi eben, *Markesaren alaba*
doinuaren harian. Eta hirugarren bariku
haretako saioa amaitzeko, Nahikarik Itziar
lotsatiari eskeini eutsan Txanogorritxuren
papera, eta ondoren Idoia matrakeari ama-
rena. Eta Idoia zutunik jarri eta matraka-
-matraka hasi jakon Itziar lotsatiari kan-
tuan:

Aizu, Txanogorritxu,
alaba maitea,
gura dot amamari
hau eroatea.

Eta, horra heltzean, hurrengo barikuko
agindua emon eutsan Nahikari andereñoak:

—“Hau eroatea” esatean, otzara bat
emongo deutzazu Itziarri antzerkia egitean.
Baina, datorren barikuan, nahikoa izango da
otzara txiki bategaz... Ekartea gogoratuko?

—Astelehenean bertan ekarriko dot
—agindu, eta kantari jarraitu eban Idoiak,
matraka-matraka:

Baina bidea dago
arriskuz betea.
Otsoagaz arduraz
ibili zaitea.



Eta Txanogorritxu lotsatiak ezti-ezti
erantzun eutsan:

Pozarren joango naz
amamarengana.
Pozik emongo deusak
emon behar dana.
Ondo ezagutzen dot
otsoaren fama.
Kontuz ibiliko naz.
Egon nasai, ama.



5

Laugarren bariku arratsaldean ere,
Nahikari andereñoak aurrez pentsatu lez
egin ebazan gauzak ikastolako antzerki-
-areto haretan.

Hasteko, Mikel otso barritsua, Idoia
ama matrakea eta Itziar Txanogorritxu
lotsatia banandu ebazan taldetik. Gero,
amamaren papera eskeini eutsan Nekane
zimelari eta ehiztariarena Xabier hanka-
-luzeari. Eta hareek biak ere taldetik
banatzerakoan, hamabiko eta hamaikako
talde bitan banandu ebazan gainerako

hogeita hiru neska-mutilak, kontalarien bertsoak kantatuz hasi eitezan txandaka, *Begiak barrez-barrez* doinuaz: Handia gertatu zan / aspaldi batean...



Aurkezpen-bertso bi hareek amaitzean, gelearen erdira urten eben ama matra-keak eta alaba lotsatiak. Eta, oraingo honetan, agindutako otzara txikia emon eutsan amak Txanogorritxuri, “gura dot amamari / hau eroatea” kantatu eutsanean, *Markesaren alaba* doinuan. Eta gozo-gozo uxatu eutsazan Txanogorritxuk bildurrak, irribarre gozo eta guzti, “egon nasai, ama” esanez.

Lehenengo kontalari-taldearen txandea etorri zan hurrengo. Aho betean kantatu eben hamabiak:

Baina Txanogorritxu,
iji eta aja!
Otso gaiztoak hor hartu deutso
bidean bentaja.

Eta *Maritxu*, *nora zoaz* doinura aldaututa, itaun gaiztoa egin eutsan otso barritsuak neska lotsatiari, haregaz batera gelearen erdira urtenda:

Txanotxu, *nora zoaz*,
eder galant hori?

Eta inozente-inozente erantzun eutsan Txanogorritxu inozenteak:

Amamaren etxera,
nahi badozu etorri.

Eta, orduan, otso lotsabakoak, itaun
lotsabakoa:

Otzarean zer dago?

Eta Txanogorritxu inozenteak, gero
eta inozenteago:


Ogia ta ezta.

Biok hartuko dogu
nahi dozun guztia.

Halan ere, amaren berbak gogora-
tuko jakozan antza, eta bere ardurea azaldu
eutsan ezezagun arrotz hari, bigarren ber-
tsoaren hasieran:

Baina otso gaizto bat
ba ei dabil hemen...

Eta arrotzak erantzun, irribarre mal-
tzurrez:



Oso zahartuta dabil,
itsu eta herren.

Eta lehengo inozentekeriara itzulita,
neska inozenteak:

Beraz, nasai jango dot
hemengo ezta.

Eta otso zuhurak arin-arin jarri
eutsan erremate bikaina bertsoari:

Nik bai jango dodala
nahi dodan guztia!

Eta laugarren bariku arratsalde hare-
tan, bigarren kontalari-taldeak emon eban
hamaiketakoaren barri:

Nahiz ta Txanotxuk egin
pare bat garrasi,
otsoak ri-rau irunsi eban
txano eta guzti (ai, ai, ai).

Nahikari andereñoak, saioa amai-
tzeko, antzerki osoa banandu eutsen
hogeita zortzi neska-mutilei, bosna orritan:



—Datorren barikurako, irakurrita
ekarri. Eta buruz ikasita, ahal dozuen guztia.



6

Baina hurrengo barikuan, ezusteko bat izan zan antzerki-areto haretan: Mikel otso barritsua agertu ez; ohean gaixorik geldituta, sukar gaiztoaren mende. Eta ordezeko otsoa aukeratu behar izan eben.

—Baten batek gura otso... —hasi zan itaunka Nahikari andereñoa.

Inoiz baino lehenago mogidu zan Jone patxadatsua, lehenengo kontalari-taldetik:

—Neuk.

Eta, bosgarren bariku arratsalde haretan, Jone patxadatsuak hartu eban Mike-len tokia.


Hasteko, aurreko barikukoa antzeztu eben. Otso barria ez zan asko estutu, ez. Eta asko estutu barik jarraituko eban, bai, handik aurrera ere.

Lehen kontalari-taldeko hamaika lagunak gogotsu ekin eutsien hurrengo bertsoari, *ai, ai, ai...* eta guzti:

Amamaren etxera
joan zan ondoren.
Eta kirtenak itaundu eutsan
zer moduz egoen (ai, ai, ai).

Amama zimelak erantzun eutsan ohetik, *Pasaiako herritik dator notizia doinu bizian:*

Egun on, medikua,
eta mila esker,
etorri zaralako
bazterrikan bazter.
Asko gizendu zara,
eskuma ta ezker.
Gizon bapoa zagoz,
sama eta izter.




Patxadea galdu barik erantzun eutsan
otso barriak, zaharraren irri maltzurraz:

Bapo loditu naz, bai,
amama apaina;
ez, oster, oindino
nik nahi dodan aina.
Osorik jango zaitut
azpi eta gaina.
Zugaz ez naz askorik
gizenduko, baina.

Eta bosgarren bariku arratsalde hare-
tan, bigarren kontalari-taldeak emon eban
bazkariaren barri:

Nahiz ta amamak egin
lau bost bat garrasi,
otsoak ri-rau iruntsi eban
moño eta guzti.



7

Antzeko zerbait gertatu jaken seiga-
rren bariku arratsaldean ere. Lehenengo,
beste ezusteko bat: Jone otso patxadatsua
agertu ez; ohean gaixorik geldituta, sukar
gaiztoaren mende. Eta ordezeko otsoa auke-
ratu behar izan eben.

—Baten batek gura... —hasi zan
itaunka Nahikari andereñoa, kezkatzen
hasita, bigarren hutsegite ha zala eta.

Mutil kaskagorri bat mogidu zan
bigarren kontalari-taldean:

—Neuk.

Eta, seigarren bariku arratsalde haretan, Haritz kaskagorriak hartu eban Jone-ren lekua, honek aurreko barikuan Mikelena hartu eban lez.



Hasteko, aurreko bariku bietakoa antzeztu eben. Otso barria ez zan asko gorritu, ez. Eta asko gorritu barik jarraituko eban, bai, handik aurrera ere.

Bigarren kontalari-taldeko hamar lagunak gogotsu ekin eutsien hurrengo bertsoari, *ai, ai, ai...* eta guzti:

Amak susmo gaiztoa
eukan barreanean.
Laster jo eban atea kax-kax
amamarenean.

Jarraian, otso kaskagorria hasi zan ohetik itaunka, *Kantatzera nijoa* doinu kulunkarian:

Zein ete dator nire
loa hondatzera,
tripan daukadan atso
zaharraren etxera?
Baina ez dot egingo
ezelan atzera.
Hau ere jan beharko
besteen antzera.

Txanogorritxu besteko inozente hasi jakon ama, otso barriaren irri maltzurraz ohartu barik:

Arratsalde on, ama,
zer moduz zagoz zu?
Gure Txanogorritxu
ikusi al dozu?
Hori da tripea, hori!
Asko puztu jatzu.
Isilik egon barik
berba egidazu.

Lehen baino maltzurrago jarraitu eban otso kaskagorriak, amaren inozentekeriaz baliatuz:



Tripa hau puztuta dago,
baina ez betea.
Oraindik ere zerbait
badaukat jatea.
Hator nire ondora,
alaba maitea.
Jakingo dozu zer dan
gozo egotea.

Eta bigarren kontalari-taldeak emon eban meriendearen barri:

Nahiz eta amak egin
hamaika garrasi,
otsoak ri-rau iruntsi eban
oihu eta guzti.





8

Antzeko zeozer gertatu jaken zazpi-
garren bariku arratsaldean ere. Lehenengo,
beste ezusteko bat: Haritz kaskagorria
agertu ez; ohean gaixorik geldituta ha ere,
sukar gaiztoaren mende. Eta ordezeko otsoa
aukeratu behar izan eben.

—Baten batek... —hasi zan itaunka
Nahikari andereñoa, guztiz kezkatuta, ia
sinestu ezinik, hirugarren hutsegite ha zala
eta.

Neska dotore bat mogidu zan lehenengo kontalari-taldean:

—Neuk.

Eta, zazpigarren bariku arratsalde haretan, Hodei dotoreak hartu eban Haritzen lekua, honek aurreko barikuan Jonena hartu eban modu-moduan.

Hasteko, aurreko hiru barikuetakoa antzeztu eban. Otso barria ez zan asko aldrebestu, ez. Eta asko aldrebestu barik jarraituko eban, bai, handik aurrera ere.

Lehenengo kontalari-taldeko hamar lagunak gogotsu ekin eutsien hurrengo bertsoari, *ai, ai, ai...* eta guzti:

Baina hamaikagarren
garrasia hara:
han iritsi zan ehiztari baten
belarrietara.

Eta ondoren bigarren kontalari-taldeko hamarrak, *ai, ai, ai...* olgetariagoz:

Ehiztariak zer egin
ondo asko daki:
otsoari, pun!, tiroa bota
ta tripa edegi.

Eta barriro ere lehenengo taldeko hamarrak, *ai, ai, ai...* oraindik olgetariagoz:

Tripa edegi eta
ha zan hango festa!
Handik atera dira amama,
ama eta neska.

Eta barriro ere bigarrengoak, *ai, ai, ai...* ezin olgetariagoz:

Ai, zein pozik dagoan
amama apaina!
Sukaldera joan ta ekarri dau
botila txanpaina.

Eta, azkenik, lehenengo kontalari-
-taldea hasi zan hurrengo ospakizunaren
barri emonez:

Nahiz ta otsoak egin
ehundaka garrasi,
botila, punba!, edegi dabe
ta bertsotan hasi.

Eta bertsotan amaitu eben ospaki-
zuna, puntuka, ehiztariak eta otsoaren
sabeletik bizirik urtendako hirurak.



Txanogorritxuk hasi eban bertsoa,
Ai, gure antzinako doinu alaian:

Primeran gagoz hemen,
txanpaina edanda,
txanpaina edanda...

Eta amamak jarraitu eutsan:

Noizbait etorri jaku
guri ere txanda.

Eta gero amak, ehiztariari esker ona
azalduz, matraka-matraka:

Otsoa hortxe dago
lurrean etzunda.

-Eta jarraian ehiztari hanka-luzeak,
egindakoari inportantzia kendu nahian,
harro-harro:

Larregi jan ta gero
egin dau eztanda.

Eta, azkenik, Txanogorritxuk berak jarri eutsen errematea bertsoari eta antzerkiari:

Zelako afaria,
halako parranda!

Eta ia danak errepikatu eben, Ane isilak ez beste guztiak:

Zelako afaria,
halako parranda!

Baina Nahikari andereño gazteak jarri eutsan errematea zazpigarren bariku arratsalde haretako saioari:

—Primeran! Hau primeran dago! Datorren barikuan barrero ere probatu, eta listo. Hurrengorako, antzezteko moduan egongo gara.

Nahikari andereñoak ez eban, ostera, pentsatutako guztia esan. Bildur zan: hurrengo barikuan, laugarren otsoa, Hodei otso dotorea, ohean gaixorik geratuko ete zan bildur, sukar gaiztoaren mende. Eta hurrengoan, bosgarren otsoa; eta hurrengoan, seigarrena... Eta, halan, antzerkia egin barik amaitu beharko ete eben 1997. urtea, Charles Perrault-i agindutako omenaldia egin barik.





9

Eta zortzigarren bariku ha heltzean, hor inguratu jako Ane isila, goizeko lehenengo eskola-orduan, Nahikari andereño-ari isilka esatera:

—Andereño Nahikari, gaur ere ez daukagu otsorik.

Laugarren aldiz gelditu ziran otso barik. Bosgarren aldiz aukeratu beharko eben otsoa... Baina ez eben etsiko. Nahikari eban izena gero. Eta izana. “Zer gura, ha lortu”, eban lemea. Eta “nahikariak

edertzen dauz gauza itsusiak” esaera zaharra, danetan gogokoen.

—Konponduko gara. Aurkituko dogu bosgarren otsoa ere, Ane —esan eutsan neskeari.

—Baina inork ez dau otsoa izan gurako.

—Konponduko gara —eten eutsan.

Andereño Nahikarik ez ekian, baina, zelan konpondu. Ez ekian zer egin. Ez ekian ezer; zelan eban izena besterik ez. Baina berbetan jarraitzea erabagi eban.

—Hodei ere gaixotu egin dala? Laugarren otsoa ere gaixotu egin jakula? Ez da sinestekoa —esan eban, nahiz eta lehendik ere igarri zer gertatuko zan.

Ikasgelara bialdu eban Ane. Eta bera ere ikasgelara joiala, Hodeiren ama ikusi eban inguratzen:

—Hodei ohean gelditu da. Jota dago, ezertarako gauza ez dala. Behin ere ez dau ezer izan. Baina, aste honetan, gero eta okerrago egoan. Orain ez da jagiteko gauza. Gauean, ametsetan ere asmatu dot. Otsoagaz ibili da istilu bizian...

—Zorioneko otsoa! —urten eutsan andereño Nahikariri.

—Zorionekoa? —itaundu eutsan harrituta amak.

—Zorionekoa edo... Eguerdian joango naz Hodei ikustera —esan eban Nahikarik.

—Estimatuko neuskizu —eskertu eutsan amak.

Hodeiren ama joatean, zer pentsatu ere ez ekiala geratu zan andereñoa. “Bardin gaixotu ziran aurreko hiru otsoak ere: Mikel barritsua, lehenengo; Jone patxadatsua, bigarren; eta Haritz kaskagorria, jarraian. Eta orain Hodei, inoiz gaixotu bako neska dotorea”, esan eban bere golkorako. Baina ez eban atzera egiteko asmorik. Ez, horixe!

Ikasgelara barik, zuzendariaren bulegora jo eban:

—Ez jatzuen, ba, barriro ere otsoa gaixotuko? —itaundu eutsan zuzendariak, betaurrekoen gainetik, andereño gazteari ezer esaten itzi barik.

—Bete-betean asmatu dozu. Eta lehen gaixotutako hirurak ere ez dira oraindino osatu. Hemen zeozer gertatzen da...



—Hemen zeozer larria gertatzen joaku —gehitu eutsan zuzendariak—. Mogitzen ez bagara, gelako neska-mutil guztiak gaixotuko jakuz, martxa honetan. Otso horrek badau zeozer...

—Otsoak edo atsoak... Hemen bada-bil zeozer edo baten bat. Sorginen bat edo. Deabruren bat... Edo otsoa bera. Batek badaki.

—Ba, zeuk aurkitu beharko dozu, Nahikari, dana dalako hori. Aurkitu, harra-patu eta...

—Neure kontu, zuzendari jauna. Astebete nahikoa izango dot dana argitzeko —esan eutsan, bere betiko “zer gura, ha lortu” lema gogoan.

Detektibe bihurtuta urten eban Nahikari andereñoak zuzendariaren bulegotik.



10

Ikasgelara joiala, tximisteak jota lez gelditu zan Nahikari ikastolako korridorearen erdian. Baina ez zan tximistea izan, itaun bat baino: “zelan jakin ete eban Ane isilak Hodei gaixorik egoala?”. Zuzenean itaundu eutsan, ikasgelara sartuaz batera.

—Banekialako gaixorik jarriko zala. Beste guztiak jarri diran lez —erantzun eutsan Ane isilak.


Baina Nahikari detektibe gazteak ez eutsan sinestu. Han zeozer gertatzen zan,

eta Anek baekian zer. Gainera, aurreko barikuan, Anek ez eban ahorik zabaldu antzerkiaren amaieran, “zelako afaria / halako parranda!” kantatzeko. Gainera, beharbada, aurreko bertsoetan ere isilik geldituko zan, eta inor konturatu ez. Eta, gainera, zergaitik esan ete eutsan lehen- txoago “inork ez dau otsoa izan gurako”, noiz eta ordura arte alkarri txandea kentzen ibili ziranean? Eta “gainera” eta “gainera” jarraitu eban detektibe barriak, hari-muturrak, binaka lotzen eta hariak alkarregaz txirikordatzen.



“Bai. Eguerdian, Hodei ikustera joango naz. Eta, bide batez, zeozer atarako deusat, zeharka-zeharka itaunduaz”, agindu eutsan bere buruari. Eta detektibe-itxurak itzi, eta eskolea emoten hasi zan Nahikari andereñoa:

—Ea zelan egin dozuezan etxeko lanak...





11

Bete-betean asmatu eban eguerdian, Hodei dotorea ikustera joan zanean. Ez eban nekatu gura izan, baina nahiko argibide atara eutsan neskeari: arratsaldeko antzerki-saioa prestatzeko beste.

Eta bostetan, hogeita lau neska-mutilak batu ziranean, honan berba egin eutsen Nahikari antzerki-irakasleak:

—Badakizue Hodei ere gaixotu egin jakula, eta beste otso bat aukeratu behar dogula. Ea, apurka-apurka, lehengo otsoak

osatzen hasten jakuzan. Baina, bitartean, zuetako beste baten batek egin beharko dau otsoaren papera...

Inork ez eutsan, baina, jarduna eten. Arrazoia izango eban Ane isilak: inork ez eban otsoa izan gurako. Halan ere, Nahikarik ez eutsan jaramonik egin. Baekian zertan ziharduan.

—Dana dala, gaurko ekinaldia hasi aurretik, aldaketa txiki batzuk egingo doguz azkeneko bertsoan: lehenengo, “dinbi eta danba!” sartuko dogu bigarren lerroan; gero “egin dot eztanda”, “egin dau eztanda”ren orde; eta, gainera, beste modu batera kantatuko dogu bertso hori... Gero esango deusuet zelan.

Andereño Nahikarik irribarrea igarri eban Ane isilaren ezpanetan. Eta itaundu eban:

—Baten batek gura dau otsoaren papera?

Ez zan inor mogidu. Ez eban inor txok ere ezer esan. Eta, orduan, Aneri eskeini eutsan:

—Eta zuk, Ane?

Irribarre egin eban otso barriak.





12

Nahikari andereñoak lanak izan ebazan beste neska-mutilen haserrea bare-tzen. Ea zelan eitekean otsoaren papera Aneri emotea. Hagaitik egozala lau otsoak gaixorik. Harek bildurtu, ikaratu eta izutu ebazala beste guztiak ere:

“Otsoaren papera egiten dauana hil egingo da, otsoa lez”, esan eutsiela banan-banan, lehenengo Mikeli, gero Joneri, ondoren Haritzi, aurreko astean Hodeiri, eta aste haretan bertan besteei, banan-banan, xomorro zikin harek.

—Eta orain bera otsoa? Ezta pentsatu ere!



Baina Nahikari andereñoak ondo pentsatuta eukazan gauza guztiak.

—Bai, ba. Gaur, behintzat, Ane izango da otsoa. Baina baldintza bategaz: Mikel, Jone, Haritz eta Hodeiren etxera joango da gero Ane, eta banan-banan esango deutse zer gertatu dan: azkeneko bertsoa aldatu egin dogula, eta hemen ez dala inor hilgo; ezta otsoa bera ere. Eta osatzeko danak lehenbailehen.

Eta halan egin ebezan gauzak. Inoiz baino barritsuago ibili zan otso isila, eta banan-banan iruntsi ebazan, ri-rau, Txanogorritxu lotsatia, ama matrakea, amama zimela... eta ia-ia ehiztari hanka-luzea bera ere. Baina ehiztariak tiro egin eta bete-betea asmatu eban. Gero tripea edegi, handik ama, alabea eta amama atara, botila txanpaina edan eta puntuka amaitu eban danak alkarregaz, Nahikari andereñoaren esanetara, azkeneko bertso zaharbarritua estreinatuz:

Txanogorritxu hasi zan:

Primeran gagoz hemen,
dinbi eta danba!,

Amamak jarraitu eban:

txanpaina edanda.

Gero, amak:

Noizbait etorri jaku
guri ere txanda.

Ondoren, ehiztariak:

Otsoa hortxe dago
lurrean etzanda.

Azken-bigarren, otsoak, inoiz baino
alaiago:

Larregi jan ta gero
egin dot eztanda.

Eta, azkenik, Txanogorritxuk:

Zelako afaria,
halako parranda!

Irribarre egin eban Nahikari ande-
reñoak.



13

Baina oraindino guztiz amaitu barik
egoan Nahikariren lana. Horrexegaitik esan
eutsan Aneri itxaroteko.

—Gauza bat itaundu gura deusut.

Eta biak bakarrik geratu ziranean,
itaun hau egin eutsan:

—Ane, zergaitik ibili zara danei hori
esaten: hil egingo dirala, otsoaren papera
eginez gero?



—Bildurra emoten deustalako. Ez dot
otsoa hilterik gura.

—Baina olgetan dihardugu eta.

—Gauza bera esaten eban beti aititak:
heriotzeagaz ez dala olgetan ibili behar,
eta heriotzeak heriotzea dakarrela.

—Bai. Arrazoia eban zure aititak.

Orduan, Anek hanka-puntan jarri,
Nahikariri mosua emon, irribarre egin eta
saltoka urten eban ikastolatik.

Nahikari irribarrez geratu jakon
atzetik begira. “Eskerrak asmatu dodan!”,
pentsatu eban bere barruan. Huts egiteko
zorian egon zalako. Izan ere, detektibe
bihurtu orduko ohartu zan Ane egoala guz-
tiaren erdian. Baina txarto pentsatu eban
gero: “Beretzat gura dau otsoaren papera,
eta horregaitik dihardu beste guztiak

bildurtzen. Isilean, gainera”. Eskerrak gero hobeto pentsatu eban: “Baina, beharbada, gauzak ez dira holan izango. Jokatu daidan kontuz”. Eta kontuz jokatu eban, eta bete-betean asmatu. Eta bere esaera zahar gogokoenaz gomutatu zan andereño gaztea: “nahikariak edertzen dauz gauza itsusiak”.

Bai. Nahiko lan baeban Ane isilak bere buruagaz. Hil barria eban, gainera, aitita. Hobeto heriotzeagaz olgetan ez ibiltea. Otsoa ere ez zan hilgo. Perrault-en ipuinean, amama eta Txanogorritxu hiltan ziran. Grimm anaienean, otsoa. Antzerki haretan, baina, inor ere ez. “Hobeto holan. Era polita, ipuinaren hirugarren mendeurrena ospatzeko.”



14

Hurrengo bariku arratsaldean, bederatzigarrenean, “bat, bi, hiru, lau...”, hogeita zortziraino kontatu ebazan, barriro ere, Nahikari antzerki-irakasleak. Aretora sartuak ziran antzerkilari guztiak: Itziar lotsatia, Idoia matrakea, Nekane zimela, Xabier hanka-luzea, lehenengo kontalari-taldeko hamabiak, bigarrenengo kontalari-taldekoak... eta bost otsoak, zein baino zein osasuntsuago: Mikel barritsua, Jone patxadatsua, Haritz kaskagorria, Hodei dotorea eta isila izandako Ane.



—Egun handia dogu gaurkoa —hasi jaken Nahikari andereñoa esaten—. Barrero ere, danok batuta...

—Aufi! —egin eban oiho Mikel barri-tsuak, guztiz osatuta.

—Mesedez, Mikel. Gaur gauza asko daukaguz egiteko, eta itzi oihiak geroko.

Eta banan-banan hasi jaken Nahikari andereñoa gauzak azaltzen. Lehenengo, otsoarena konpondu behar ebela.

—Bost otso egozan. Eta bostok egin daikezue otsoaren papera. Baita beste guz-tiak ere.

—Aufi! —barrero ere Mikelek.

—Mesedez, Mikel. Izan ere, hain urten deusku antzerki biribila... Seguru

nago dei asko jasoko doguzala ikastetxe batetik eta bestetik. Eta danok izango dozue aukerea, txandaka-txandaka, otsoaren papera egiteko.

—Aufi!!! —egin eben oiho hogeita zortziak.

—Baina gaur bat aukeratu beharko dogu. Eta onena, orain arteko bost otsoetatik aukeratzea.

Bost paper txiki hartu, batean “otsoa” idatzi, bostak nahastu, eskuan ezkutatu eta bana eskeini eutsien bost otsoei.

—Aufi!!! —egin eban salto Haritz kaskagorriak.

—Mesedez —eten ebazan Nahikari andereñoak besteen txaloak—. Orain, antzerkiaren izenburua bakarrik falta jaku...

eta kartela egitea. Baina gerorako itziko doguz horreek...

—Nahikari, nik badot antzerkiaren izenburua —aurreratu jakon Ane.

—Bota, ba —Nahikarik.

—Otsogorritxu.

—Aufi!!! —egin eben danak oihu.

Eta “Otsogorritxu” antzerkia estreina-tzen hasi ziran berehala. Inoiz baino indar-tsuago kantatu eben kontalari-talde biak, inoiz baino lotsatiago jardun Txanogorri-txuk, inoiz baino matrakeago ibili ama, inoiz baino zimelago agertu amama eta inoiz baino gorriago lan egin otsoak eta inoiz baino goriago geratu, Txanogorritxu, ama eta amama iruntsi eta gero, harik eta inoiz baino hanka-luzeago ebilen ehizta-riak tiro egin eutsan arte.



Jarraian, kontalari-talde biak kantatu
eben. Eta gero, bostak:

Txanogorritxu hasi zan:

Primeran gagoz hemen,
dinbi eta danba!,

Amamak jarraitu eban:

txanpaina edanda.

Gero, amak:

Noizbait etorri jaku
guri ere txanda.

Jarraian, ehiztariak:

Otsoa hortxe dago
lurrean etzanda.

Azken-bigarren, otso kaskagorriak:

Larregi jan ta gero
egin dot eztanda.

Eta, azkenik, Txanogorritxuk:

Zelako afaria,
halako parranda!

Eta hogeita bederatziak errepikatu
eben:

Zelako afaria,
halako parranda!

“Aufi” oihuka eta txalo-zaparrada
batez amaitu zan “Otsogorritxu” antzer-
kiaren estreinaldia.



15

Nahikari antzerki-irakaslea aretoan geratu zan beste apur baten.

Orrri handi bat hartu eta kartela zirriborratzen hasi zan:

Charles Perrault-en omenez

1697-1997

OTSOGORRITXU


antzerki barria

abenduaren 19an

arratsaldeko 5etan

Beste bariku arratsalde bi geratzen jakezan antzerki barri besteko bikain ha guztiz ondo prestatu, kartelak egin eta herri osoan jarteko.

Jagi eta irribarrez urten eban antzerki-aretoetik, eta irribarrez jarraitu eban ikastolako sarreraraino, eta irribarrez agurtu eban eguzkia, mendien atzean ostontzera joiana.



Hiztegia

Ezti-ezti: gozo-gozo, leun-leun.

Goiburu: helburua, lemea, ezaugarria.

Ihar: argala, mehea.

Inozokeria: lelokeria, ergelkeria.

Izuti: errez ikaratzen edo bildurtzen dana, bildurtia.

Jario: berba jarioa, jarduna, barritsukeria.

Jostalari: jolastea atsegin dauana.

Lauzpabost: lau edo bost.

Matraka: lotsabakoa, bihurria.



Aurkibidea

1. kapitulua	7. or.
2. kapitulua	9. or.
3. kapitulua	17. or.
4. kapitulua	19. or.
5. kapitulua	25. or.
6. kapitulua	33. or.
7. kapitulua	37. or.
8. kapitulua	43. or.
9. kapitulua	51. or.
10. kapitulua	57. or.
11. kapitulua	61. or.
12. kapitulua	65. or.
13. kapitulua	69. or.
14. kapitulua	73. or.
15. kapitulua	83. or.



- 1 **Ostadarraren zazpi atek**
Karlos Santisteban
- 2 **Mister Popoffen abestia**
Julia Otxoa
- 3 **Nijterida eta Koomori saguzarrak**
Aitor Arana
- 4 **Txorien zoria**
Juan Manuel Etxebarria
- 5 **Pako belea**
Iñaki Zubeldia
- 6 **Dragoi dantzariak**
Manuel Alonso Erauskin
- 7 **Otsogorritxu**
Pello Esnal
- 8 **Han-hemengo ipuinak**
Antton Irusta
- 9 **Eguzkia puxtarrarian**
Karlos Santisteban
- 10 **Pako belearen okerkeriak**
Iñaki Zubeldia

OROIMENAGAZ JOLASTEN

*Gogoratzen dozuzan
pasarteen arabera
margotu
nire neurgailua!*





- Grimm anaien omenez antzeztuko dabe Txanogorritxu.
- Ipuineko ehiztariaren omenez antzeztuko dabe Txanogorritxu.
- Charles Perrault frantsesaren omenez antzeztuko dabe Txanogorritxu.



- Danak ikasi behar izan ebezan bertso guztiak.
- Bost ikaslek bakarrik ikasi behar izan ebezan bertsoak.
- Ikasle bik bakarrik ikasi behar izan ebezan bertsoak.



- Antzerkiaren amaieran, ehiztariari esker, Txanogorritxuk, amamak eta amak otsoaren sabeletik urten egiten dabe.
- Antzerkiaren amaieran, otsoak Txanogorritxu, amama eta ama jan egiten dauz.
- Antzerkiaren amaieran, danak otsoaren lagunak egiten dira.



- Nahikari andereñoa eta zuzendaria kezkatuta egozan otsoak (ikasleak) gaixotzen joiazalako.
- Nahikari andereñoak eta zuzendariak baekien zergaitik joiazan gaixotzen ikasleak (otsoak).
- Nahikari andereñoa eta zuzendaria pozik egozan dana ondo joialako.



- Anek pozik hartu eban otsoaren papera.
- Anek ez eban otsoarena egin gura.
- Ane gaixotzeko bildur zan.



- Nahikari andereñoak jarri eutsan Otsogorritxu izenburua antzerkiari.
- Aneren ideia izan zan Otsogorritxu deitzea antzerkiari.
- Zuzendariak erabagi eban Otsogorritxu deitzea antzerkiari.



Ikastola baten,
Txanogorritxu
antzerkia egitea
erabagi dau talde
batek, ipuinaren
hirugarren
mendeurrena dala
eta. Nahikari
andereñoak moldatu
dau ipuina bertotan,
neska-mutilak hasi
dira prestatzen,
baina... Astero-astero
aldatu behar dabe
otsoarena egiten
dauan neska edo
mutila. Izan ere,
halako madarikazio
ezkutu batek...

8 urtetik aurrera



(B)

